



BIDAIA ZAPUZTU BATEN KONTAKIZUNA

Marianne Breslauer argazkilari alemanak Euskal Herrian zehar egin zuen bidaia 1933ko udaberrian, Annemarie Schwarzenbach idazle suitzarrarekin batera. Iruñea helburu, sei bat egun eman zituzten bazterrotan, eta bederatziz argazki atera guztira. Berlinera itzuli zirenean, ordea, gauzak ez zeuden partitzean utzi bezala.



Aritz Galarraga
@aritzgalarraga

Donostiako San Telmo museoan izan zen, *Modernitate bakan bat* erakusketa ederra ikusten –zeinean ezagutu daitekeen 1925-1936 artean Donostiak izan zuen leku nabarmena, abangoardiako une distiratsu eta emankorrenetako batean-. Izan zen Jose Luis Aizpurua, Nikolas Lekuona, Juan Cabanas Erauskin, Eduardo Lagarde eta abarrekoen kartel, margo, collage eta, batez ere, argazkiak ikusten –zeinak euskal artearen sortze-une historiko baten parte izan ziren, abanguardia espainiarraren barruan garrantzia nabarmena izateaz gainera–: kontxo, gure modernitateak ez du izan emakumerik.

Ez du izan gureak, noski, aipatu erakusketako izendegiari kasu eginez gero, behintzat. Modernitateak oro har bai, ordea. Ez akaso Donostian, baina bai, adibidez, Alemania aldean. Hain zuzen ere, Donostiakoa nolabait hauspotu zuen Weimarko Errepublikako kultur iraultzaren baitan. Esate baterako Marianne Breslauer: Berlinen jaioa, 1909an, Alemaniako goi-burgesia ilustratuko familia batean, judutar jatorrikoa. Argazkilaria, izan ere, lanbide hori, argazkigintza, modan zegoen XX. mendeko 20ko hamarkadan, klase altuko alaben artean. Aldaketa sozialek ekarri zuten burgesiako emakumeek ere ogibide bat ikastea, badaezpada ezkongabe geratzen baziren. Eta argazkilaritza ez zen desegokiena, izanik heziketa artistikoa. Baliabide berria zenez, gainera, emakumearen sarrera bestelako arte diziplinetan baino errazagoa omen.

Berlinen bazegoen emakumeek argazkia ikasteko zentro bat, eta hantxe egin zituen Breslauerrek ikasketak. Horiak bukatuta, Paris hartu zuen jomuga, garai-ko jaidurak hala bultzatuta. Man Rayren estudioan hasi zen, 1929an. Dena den, bien arteko kontaktu eta eragina ez zen izan oso estua. Estuagoa izan zen, agian, *Un chien andalou* filma ikusi bitartean –labanak begia labaintzen duen eszena hartan–, Breslauer zorabiaturik Man Rayren gainera erori zenekoa. Elkarri erretratuak egin zizkioten, bai, baina edo gazte alemaniarrak nahikoa zekiela ebatzita, edo hasiberriak hartzeko gogorik ez zuela erabakita, haren kontura jartzeko esan zion *Emak bakia* filmaren egileak.

Harreman gehixeago izan zuen Breslauerrek, bere argazkiek bederen, Brassai eta Kertész hungariar-frantsestuekin. Batez ere azken horrekin, gogo noragabe bat partekatu baitzuten: biek ala biek ibili zuten Paris alderik alde, kale, bazter, izkinetatik, hirian zehar galduz, jende erabat normalari eginez argazkiak. Eguneroko bizitzaren eszenak harrapatu zituzten, oharkabean igarotzen diren uneak, hutsalkeriak. Errealismo poetikoa deitu izan den hori, objektibitate berriaren aurrean.

Breslauer ez zen inondik inora estudioko argazkilaria. Are, une batetik aurrera, gehiago izan zen albistari grafiko edo fotokazetari izenez ezagutzen duguna. Bidaiak egin zituen, Italia, Frantzia, Holanda, Palestinara. 1932an ezagutu zuen Annemarie Schwarzenbach idazleak bezala. Ezagutza inportantea: Sch-

warzenbach, suitzarra, 1908koa, Thomas Mann idazlearen seme-alaba Klaus eta Erikaren lagun mina, *Tod in Persien* (Heriotza Persian) edota *Alle Wege sind offen* (Bide guztiak irekita daude) liburuaren egilea. Bigarren horretan, hain justu, Balkanak, Turkia, Iran, Afganistan zeharkatzen dituen bidaldi bat kontatzen du. Schwarzenbach, gizaki modernoaren desterru sentimendua sinbolizatzen duena, badakielako etxe, supazter, abarorik ez dagoela: “Nire gaixotasuna ez da iragankorra”. Bizimodu gorabeheratsukoa, segur aski biografiak itzal egin dio suitzarraren obrari. Eragin handia izan zuen, ordea, Breslauerrengan.

Hain, ezen 1933ko udaberriko bidaia bat pentsatu zuten, nora eta Espainiara (sic), nora eta, ohikoagoa zen Andaluzia ez, Espainia iparraldera (sic). Arriskatua dirudi, baina ez da hain arraroa: bidaia zen, hain zuzen, *neue Frau*, emakume berri, moderno, ustez askearen ezaugarrietako bat. XX. mendeko 20ko hamarkadan masa baliabide berriak agertu ziren, aldizkari ilustratu, publizitate, zinema; eta emakumeak adatsa garçon erara, galtzekin, maskulino, sexuen anbiguotasunarekin jolastuz. Aisialdia maite zuten, kirola: gimnastika, igeriketa, tenisa. Eta automobila.

Automobila izan zen Breslauer eta Schwarzenbachek beren bidaiarako aukeratu zuten lokomozio bidea. Ez zen opor bidaia izan, idatzi eta argazkiak egin behar zituzten, Alemaniako argazki agentzia batentzat. Katalunia aldean ibili ondotik, Pirinioak zeharkatuta, Iruñea,



Donostia, Loiola eta berriz Iruñea bisitatu zituzten. Hiri Buruzagiarekin zeuden gogoberotuta. Errua Ernest Hemingway idazleak zuen, zehatzago berak idatzitako *The Sun Also Rises* izeneko nobelak –*Fiesta* izenez ere ezaguna–, zeina 1928. urtean itzuli baitzen alemanera. Breslauer apika ez hainbeste, baina Schwarzenbach, bere biografia eta obra eza-gututa, identifikatuta sentitu zen ziur nobelako pertsonaiekin, *lost generation* delakoa irudikatuta zutenak.

“Hemingwayk deskribatu zuen atmosfera arnastu nahian” egin zuten bidaia, beraz. Baina, Iruñea urte osoan izan daitekeen arren festa, maiatza ez da sanfermin, eta bertako argazki gutxi egin zituen Breslauerrek, Schwarzenbachek bueltan ez zion eskaini erreportaje bakar bat. Bidaia hartako argazkiak, oro har, ez dira leku esanguratsu, monumentu garrantzitsuei egindakoak –Loiolako basilika izango da salbuespena–. Bai, aldiz, detaile txiki, atentzioa ematen dioten pertsonaia, batez ere haur-gazteenak. Donostiakoak, portu aldekoak; Iruñekoak, karrika estanpak. Guztira, hamabi. Irudi batzuetan ikusten da, bestalde, bidaiariek sortu zuten ikusmina: Mercedes Mannheim zuri distirant kapotarik gabe, gizonik gabeko bi ema-

Annemarie Schwarzenbach idazlea ageri da lehen bi argazkietan, bidaiatzeko erabili zuten autoaren ondoan eta Donostiako hondartzan. Iruñean hartua da hirugarren erretratua.

» Sexu-anbiguotasunarekin jolasten hasi ziren emakumeak 1920ko hamarkadan: Breslauer garai haren alaba da

kume, atzerritar, altu, ile motzeko, zigarrera eskuan. Espainiako hezkuntza kritikatzeko erabili zituzten erretratu batzuk, gobernu modu berriarekin zuzenduko zela zioten. Besteren gainetik zegoen Bigarren Errepublikak ekarritako aldaketen gaineko interesa.

Berlinen atzera, erreportajeak ezin izan ziren Alemanian publikatu. Naziek boterea eskuratuta, 1933ko urtarrilaren 30ean izendatu zuten Adolf Hitler Alemaniako gobernu-buru, eta handik gutxira hasi ziren hainbat herritarren hainbat eskubide baliorik gabe uzten. Argazki agentzia ez zen ausartu Breslauerren lana haren izenez argitaratzera,

ez baitzen ariarra. 1936rako erbeste-bidea hartu behar izan zuen, Amsterdamera, gero handik Suitzara joateko, non bizi izan zen 2001ean heriotza iritsi zitzaion arte. Baina Bigarren Mundu Gerrarekin galdu zuen argazkiarekiko gosea. Inon aitortu zuen noizbait, bizimodu aldaketek –erbesteak, ezkontzak, seme-alabek– ez ziotela uzten nahikoa kontzentratzen argazkilaritzan, eta ez zuela gutxitu nahi argazkien kalitatea.

Donostiaren errezko aroak, esan dugu, Bigarren Errepublikan eta 36ko Gerra hasi arte iraun zuen. Gerra horrek, beraz, bazterrotan egiten zen arte guztiarekin bukatu zuen –ez bakarrik Errepublikaren aldekoarekin: Aizpurua falangista fusilatua; Lekuona gudaroste nazionalen hila, nazionalen euren bombardaketa batek, eta osasun laguntza ematen ari zela–. Alemanian, nazismoaren gorakadak ekarri zion, beste hainbati bizitza nola, askori bizimodu baten eraztea. Eta Marianne Breslauerren kasuan, bidaia zapuztua ez zen izan hainbeste festarik gabeko Iruñera, ezpada bere herrialdeko egoera politiko berriak uztera behartu zuen argazkilari ibilbidearena. Zorionez, berriki berreskuratu eta haren lana iritsi da guregana. Urrutira gabe, gurean ere egin beharko genukeena. ■

1. finalaurrekoa | **LANGRAIZ** | **OTSAILAK 5**
Gizarte etxean | igandea 17:30
Guz-errepidean Martia Ugarte Alzola

Manex Agire Amolabengoa	Zigor Erbeita Zugadi	Asier Rubio Hidalgo	Felipe Zelaketa Txurruka	Peru Abarategi Sarrionandia	Rikardo G. de Duana Alzola

ARABAKO Bertsolari Txapelketa 2017

www.bertsotzale.eus/araba